

AGUR ASPALDIKO GABIRIA!

Doinua: "Iparragire"

1

Aurten beteko dira ehun urte
Gabiria hasi zala,
ta hirurogeita hamar urte
ni bertan sartu nintzala.
Aspaldiko Gabiri
ezin zait ahaztu niri!
Nire bigarren magala.
Hainbeste ume hazitakoa
ez da amandre makala!

2

Baserri giro apal goxoan
agertu nintzen mundura,
han txastatu nuen behin betirako
euskal iturriko ura.
Euskaldun ta erdaldun
gehienak ezezagun,
bihotz beteko tristura;
aldatu berri den landaratxoa
ez zegoen, ez, gustura.

3

Praileak praile, lagunak lagun,
eta guztiak barriak,
baina amarik ez inguruan
ta jo ninduen larriak.
Non nagon jakin barik
ezin hartu bueltarik,
ezkutuko lokarriak.
Aitak ez ditu kentzen legeak
Ama Naturak jarriak.

4

Ikasi, jolas, jan eta otoitz
hamar mila gorabehera,
pixkana egin nintzen bertara
hezitzailen esanera.
Zer den bokazioa?
Hau da okazioa
bizitzan dugun aukera.
Hor bitartean dabilen Harek
erakartzen du norbera.

5

Sabela beti erdi hutsik ta
erdi beterik platera,
gerra ondoko umeak ginen
ez zen hainbeste aukera.
Etxez etxe korrika
edo Amerika
sarri jo behar eskera...
Nork jan asko ta zer jan gutxi zen;
ez dira onak batera.

6

Ingurugiro txarra zen baina
etxegiroa samurra,
gu ginen giza-landarentzako
sekulako hazi-lurra.
Zer izan behar genun?
Euskaldun ta fededun,
horra hor bizkarrazurra.
Aro ona zen eta norberak
dantzatu behar haitzurra.

7

Batzuen ustez ezjakinean
sartu ginen prailtzara,
etxeko berri ez dakitenak
begitu behar plazara.
Batera hasiarren
bizitzak zer dakarren:
Haiek hona, hauek hara...
Baina gaur ere "Gabiritarrok"
adiskide onak gara.

8

Ez digu ezer kalterik egin
hor Gabirian egonak,
Eliz ta Herri zorretan daude
ongi daki hau dionak:
Fedez eta kulturaz
aginpide-arduraz
pulamentuzko gizonak...
Gaur eskerron ta pozez diogu:
Oi Gabiri, ZORIONAK!